

# Ezezagunekin lanean

## Heziketa Berrikuntza Proiektua

### Laburpena:

«Ezezagunekin lanean» talde-lan esperientzia bat da, jatorri kultural ezberdinetako ikasleen artean garatzen dena, eta ikasturte batean zehar ezezaguna zaien lankide batekin lan egitera bultzatzen dituen. Ariketa honek, guztiz ezberdina den beste kultura batekin konparatzean, gure arkitektura-kultura propioa ezagutzen laguntzen digu.

Gako-hitzak: Elkarlana, Atzerritarak, Plataforma digitalak, Mundu profesionala.

### Abstract:

«Working with strangers» is a team working experience, carried out by students from different cultural origins, which are invited to work during the course with an unknown partner. It is an exercise that uses the comparison with a totally different environment, in order to learn about our own architectural culture.

Keywords: Collaborative work, Foreigners, Digital platforms, Professional works.



Arantazu Luzarraga Iturrioz  
Arkitektoa eta UPM-ETSAMen Eusko Jaurlaritzaren PREDOC bekaduna

Bidaltze data: 2016-04-01  
Onartze data: 2016-05-04



### Aurkezpena: «Ezezagunekin lanean» heziketa-proiektua

«Ezezagunekin lanean» Madrilgo Arkitektura Goi Eskola Teknikoan Federico Soriano zuzenduriko irakasle eta ikasle taldeak azken urteotan garatutako lan-esperientzia da. 2012-2013 ikasturtean hasirik, ikasleek arkitektura-proiektuak beti atzerriko unibertsitate bateko ikasle batekin edo birekin elkarlanean garatu behar dituzte, hau da, aurrez guztiz ezezaguna zaien kide batekin. Partaidetzak orain arte Brasil, Grezia, Uruguai, Taiwan, Korea, Puerto Rico eta Italia-rekin gauzatu dira.

Proiektu honen helburu nagusia ikasleek biharko egunean lan-munduan bizi izango duten egoerari aurre egitea da. Unibertsitatean ohikoa da talde-lanean aritzea, baina normalean talde horiek lagun ala ezagunen artean osatzen dira. Mundu profesionalean, ordea, egunero aurrez aurre ikusten ez ditugun pertsonekin lan egitera behartuta ikusten dugu geure burua, horretarako plataforma digitalak erabiliz, batetik eta besteak txandaka maneiatzen ditugun dokumentuak forma emanez.

Emaitzak pedagogikoki interesgarriak direlakoan, hiruhileko bakoitzeko kurtsoak *OpenCourseWare* plataformaren bidez edonoren eskura daude. Bertan kurtso hasieran ikasleei ematen zaizkien liburuxka, programa, bibliografia, atzerriko herrialdeetan eginitako workshopen emaitzak, ikasleen artean sinatutako kontratuak, dokumentu finalak etab. ikus daitezke.

Azkenik azpimarratu beharrekoa da hasieran kaltegarriak diruditen zailtasun komunikatiboak ikasleentzat, aldiz, lagungarri bilakatzen direla, egoerari aurre egin eta aurreiritzi eta beldurrak alde batera uzteko tresna bilakatzen baitira.

### Helburuak

Postproduzioaren<sup>1</sup> bidez ikasleak elkarlanean aritzea dugu helburu, hau da, aurrez existitzen den material batekin lan egin, aldatu eta, azkenik, errepresentazio arkitektoniko bilakatzea.

Ezezagunekin elkarlanean zelan aritu? Konpromiso-baldintzak nola negoziatu? Taldelanerako jarraibide komun eta eraginkorrak nola ezarri? Nola pentsatu eta ekoitzi erreminta grafiko komun baina kultura ezberdinetakoen bidez? Nola landu igorgarriak diren dokumentuak haiek azaltzeko bertan egongo ez garela jakinik? Prozesu hori guztia konbentzio arkitektonikoak onartzen dituen dokumentu batean nola gauzatu?

Irakasleriaren aldetik planteatutako galdera horiei eta beste askori erantzuna eman die esperientzia honek. Kurtso hauek ikasleak unibertsitateetik irtetean aurkituko dituen lan-dinamikak erreproduzitzen dituzte heziketa-etapa honetan. Ezezagunekin eta jada aurrez produzitutako informazioarekin lan egitea, alegia, unibertsitate kanpoko lan egiteko erak talde-lanarekin loturiko erronka moduan azaltzen zaizkio arkitektura-diziplinari, elkar ezagutzen ez duten kideen artean gertatzen direlako. Unibertsitateko irakaskuntzak ga-

<sup>1</sup> Postproduzioa Nicolas Bourriaud komisarioak izen bereko interpretatu eta lehenago beste artista batzuek eginitako lanak erreproduzitzeko duten joera da.



1 irudia ~ Hasieran banatzen den liburuxka.  
Iturria - Egilea.

bezia horri aurre egin behar dio, eta heziketa-erronkatzat harturik atzerriko hainbat unibertsitateekin harremanetan jarri gara, beraiekin ohikoa ez den lan-modelo hau kudeatzeko borondatearekin.

Proiektu honen garapenerako, unibertsitate desberdinen arteko lana eta komunikazioa koordinatu ditugu, Madrilen egindako ariketa-proposamen komun bat abiapuntutzat hartu eta atzerriko unibertsitateek berezkozkat onartu dutelarik. Entrega partzialen egutegia ere koordinatu dugu, urrutiko lantalde bakoitzak erritmo orekatu bat mantentzeko. Egutegi komuna beti hiru partetan garatzen da: lehenik aurkezpen gisa eta kurtsoaren mekanika azaltzeko workshop bat egiten da parte hartzen duten unibertsitateetako batean; gero jatorri ezberdinetako kideez osatutako talde-lana garatzen da; eta azkenik taldeak disolbatu egiten dira kide bakoitzak arreta guztia bere jatorrizko unibertsitatean entregatu behar duen dokumentuan jar dezan.

### Sortutako ikasmateriaia:

Kurtso hauetako bakoitzean lau ikasmateriaial produzitzen dira, bat kurtsoa hasi aurretik, bi kurtsoan zehar eta beste bat kurtsoa bukatu ondoren. Bakoitzak formatu ezberdina du eta ondorengoak dira:

Kurtso hasieran ikasleei banatzen zaien liburuxka (1. irudia). A6 formatua du eta bertan kurtsoaren edukiak, erreferentziak, kronograma, beste urte batzuetako lanak eta abar biltzen dira.

Astero A5 formatu tolestuan ikasleei aste horretan jorritzen den gaiari buruzko testu bat banatzen zaie. Testua beti diziplinarterkoa izaten da eta eduki intelektual sakonekoa<sup>2</sup>.

Astero ere, hirugarren klase egunean zenbait gonbidatu ekartzen dira, ikasleek entregatu beharreko hurrengo la-

<sup>2</sup> Bai A6 liburuxkak bai asteroko testuak ondorengo helbidean aurki daitezke: <<https://issuu.com/uddfedericosoriano/docs>>.

narekin erlazionatutako gaiak lantzen dituztenak. Hitzaldi labur hauek «Hurbilketa Periferikoak. Ikasketa Transbertsala Esperientzia Kolektiboan» ikasketa-berrikuntzako proiektuaren parte dira.

Azkenik kurtsoa bukatzean eta emaitzak pedagogikoki interesgarriak direlakoan kurtso osoa *OpenCourseWare* plataformaren bidez Interneten bidez edonorentzat eskuragarri jartzen da<sup>3</sup>.

Kurtsoaren garapenerako elementurik garrantzitsuenak:

«Ezezagunekin lanean» esperientziako kurtso bakoitzak nabarmendu beharreko hainbat atal dauzka, urteotan hiru hileko bakoitzean probatuz joan direnak; batzuk gehituz joan dira eta beste batzuk, ordea, probatu eta gero hain baliagarri suertatu ez direnak, baztertu egin dira. Aipagarrienak honakoak dira:

### Kontratua:

Proiektuak urrutiko lekuetan eta nazionalitate, lan-ohitura, ikuspuntu, ordutegi, hizkuntza, erreminta, inplikazio... ezberdinetako kide ezezagunekin garatzen diren testuingu batean murgildurik hasten da negoziazio-prozesua. Atzerriko unibertsitateetako ikasleek Madrileko ikasleek eginiko aurkezpen-bideoa ikusi ondoren, Facebook bidez kontaktuan jarri eta taldeak osatzen dituzte. Lan-erlazio hori kontratu baten bidez finkatu beharko dute.

Kide guztiak sinatu beharko duten dokumentu honek lanaren banaketa, kontakturako erabiliko dituzten kanalen aukeraketa, komunikazioaren maiztasuna, landuko dituzten dokumentuen formatua, lanerako erabiliko diren *software*-ak eta abar zehaztuko ditu. Dokumentu hau lehenbailehen itxi eta sinatu beharko dute, proiektuarekin hartzen duten konpromisoa bermatzeko.

<sup>3</sup> Ikusi <<http://ocw.upm.es/proyectos-arquitectonicos>>.

De Certeau praises mapamundi for the way that they capture the experience of movement: "an outline marked out by footprints with regular gaps between them and by pictures of the successive events that took place in the course of the journey... not a 'geographical map' but 'history book'" (de Certeau 1991, 120; see also Woodward 1985, 1987b). Although a mapamundi might be more "accurate" than the modern map in capturing the experience of movement through time, it is no better (and probably worse) at capturing movement through spaces that, even if they are dynamically produced, always exist in relation to other spaces.<sup>7</sup> The potentials and limits of this position are exemplified by another piece of conceptual art based on the New York City subway map, Hand-held Subway, by Nina Katchadourian (Figure 2). In an apparent invocation of Deleuze's statement (after Bergson) that "movement is no less outside me than in me" (Deleuze 1988, 75), Katchadourian (1996) has cut out the routes from the subway map and reconstituted them within her hand, leaving the viewer wondering whether, when one moves, one's body moves along routes (that are set against a fixed background of space) or whether routes move through one's body (as a collage of images, experiences, and memories that flash through one's brain as one moves through time). Thus, Katchadourian illustrates Deleuze's concept wherein "our perception contracts 'an incalculable multitude of rememorized elements'; at each instant, our present infinitely contracts our past" (Deleuze 1988, 74). As Massey (2005) notes, however, Deleuze's conceptualization falls short because, although the "here and now" of the self is constituted through the accumulated memories and images of passage through time, it is equally constituted through the accumulation of passages through space. Hence, although Katchadourian's artwork is to be commended for leading the viewer to consider the metaxis of mobility, it fails to fully capture the practice because mobility involves movement through space as well as time.




Figure 1. "Subway Map" By Matthew Knutzen (2000).



Figure 2. "Hand-held Subway" by Nina Katchadourian (1996).

4

UNIVERSIDAD POLITÉCNICA DE MADRID  
ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA

add **23** federico soriano

Textos 2012-2013

**19**

Mapping movement

PHILIP E. STEINBERG

en *Sovereignty, Territory, and the Mapping of Mobility:*  
*A View from the Outside*

It is easy to issue calls for recognizing mobility as constitutive of society, but putting this recognition into practice is much more difficult, in large part because mobility elides representation: "[Mobility] is absent the moment we reflect on it. It has passed us by" (Cresswell 2006, 57). When movement is mapped onto Euclidean space, the processes of movement, wherein people engage and produce space in their everyday lives as they draw and cross borders, are replaced by static representations.

As summarized by Burnett:

*Carter points out that the flattening of the land into a mapped walking the land from a way of living into little more than a symbol. The peripateta of one foot following another across the contours of the terrain became merely a line on the map. Instead of being an exploration—an active engagement with place—the passage became a fixed inscription: the place became a stage. The dialogues of foot and ground, light and eye, breath and breeze all vanished, and with them the territorial claims of wanderers and nomads, those whose relationship with place was rooted in participation (methexis), not representation (mimesis). (Burnett 2000, 171)*

De Certeau elaborates on this point in his critique of route maps: *It is true that the operations of walking on can be traced on city maps in such a way as to transcribe their paths (here well-trodden, there very faint) and their trajectories (going this way and not that). But these thick or thin curves only refer,*

2. irudia -  
Asteroko testu  
transbertsala.  
Iturria - Egilea.

1

7º International Design Seminar  
*Atlas of Emulations of the Informal V:*  
*Residue Island*  
**REM KOOLHAAS**  
**UN ESTUDIANTE DE**  
**ARQUITECTURA EN**  
**LONDRES**

Date: 16th September in Madrid (at 2G4; 19:00 h)



**CARLOS GARCÍA GONZÁLEZ**

Course 2015-2016. Fall term. Unit 19 Soriano

Technical University of Madrid (Spain).  
Teachers: Federico Soriano, Pedro Uzuza, Eva Gil.  
Assistant teachers: Carlos Charón, Arantza Lazarraga, Natalia Matesanz.  
Scholars: Eduardo Castillo Vinuesa, Julio Gotón, Agustín López, Jesús López, Blanca Muñoz.  
Picture: Carlos García González

Grupo de Innovación Educativa:  
Dispositivos Aglutinadores de Proyecto (DIP).  
Architectural Design. Course 306-306f.



**CONTRACT**

**BETWEEN**

ELENA JUARROS UTRILLA student from ETSAM (Universidad Politécnica de Madrid), located at Madrid, Spain  
And MICAELA DASKALOPOULOU student from Democritus University of Thrace, located at Xanthi, Greece

**WHEREAS**

I.- This document sets forth the terms of the agreement between ELENA JUARROS y MICAELA DASKALOPOULOU for the university collaboration.  
II.- In consideration of the premises and the mutual covenants and agreements here in contained, The Parties, having legal and contractual capacity, enter into this collaboration Agreement, according to the following.

**STIPULATIONS**

**FIRST - WORK**

The parties intend to promote and exploit the following work:  
Title: "Informal Atlas Favela"  
University Faculty: "Architecture"  
Duration: since mid-october 213 until until end-december  
Year of production: 2013

**SECOND - GRANT OF RIGHTS**

Therefore, The Parties does hereby grantsand licenses to their respective Universities, the exclusive right to reproduce, distribute, exhibit, advertise, market and exploit the project in the languages set out herein.  
To this end, the Parties shall be entitled to negotiate and conclude license and/or distribution agreements with third parties for the exploitation of the project. The Universities shall respect the integrity of the project.

**THIRD - THE QUESTION OF AUTHORSHIP**

The Parties are granted the right to insert or have inserted their logo, trademark or tradename before the beginning or at the end of the project, or in any produced materials.

**FOURTH - WORKING METHOD**

All works must be edited and delivered in one of the following extensions: .JPG, .PDF, .PSD, .DWG, .PPT, .PNG, .AVI, .MOV, .3DM.  
Also, hand drawings or sketches must be scanned or photographed.  
In relation to Dropbox Folder Organization:  
- Folder of Suggestions like images, Websites, ideas, videos, articles from magazines or newspapers, TV programs...  
- Folder for made documents (not only the finals documents, process documents also, always editable and non-editable documents)  
- Text document as a project diary.

**FIFTH - WORK LANGUAGE**

The language used for the workflow of the present Agreement, should be english.

**SIXTH - COMMUNICATION**

Notifications will be made through: Facebook, email, skype.

**SEVENTH - TIMETABLE**

The Parties agree to give a sign of life daily, even if it's to say... "I haven't done anything today" (will happen often).  
In any case, The Parties will try to do a meeting once a week.

**EIGHTH - METHODOLOGY**

The Parties undertake to contribute ideas of different sorts for the achievement of the goals governing the subject of this contract.  
On the one hand, Micaela Daskalopoulou, will provide information and references, whether bibliographic references (books, newsletters, magazine and publications), multimedia (video and audio), and any other directly associated with de project. Furthermore, she will be responsible for making models (modeling).  
On the other hand, Elena Juarros Utrilla, shall be responsible for the development of the graphic support elements. These include the development and conceptualization of the sketches that illustrate the different phases of the project, and the various CAD drawings and renders required for proper completion of project.

**NINTH - BREACH OF CONTRACT**

When any party breaches the provisions of the present Agreement, the defaulting party, at the other party's written request, shall fulfill its obligation in the term of seven (7) days maximum. The non-fulfillment of their respective contractual obligations by any of the Parties, shall entitle the non-defaulting party, at its sole decision, to terminate this Agreement.

**TENTH - OTHER AGREEMENTS**

- Try to comment every document sent by the other teammate, always constructively.  
- Comment the teachers corrections and try to find other points of view and things in common.  
- If a team member is very lost, please shout for help.

In witness whereof, the parties hereto have executed this Agreement in two copies, 14th of October 2013.


Micaela Daskalopoulou Elena Juarros



3. irudia - . Asteazkenetako hitzaldia.  
Iturria - Egilea.

4. irudia - Kontratu adibidea.  
Iturria - Egilea.





5.rudia ~ Protodokumentua.  
Iturria ~ Egilea.

### Protodokumentua:

Protodokumentua proiektua abiarazten duen marrazkia da (2. irudia). Arkitekturaz betetako irudi bat da, baina ikasleak inongo testuingururik gabe jasotzen duena. Ikasleak dokumentu honen irakurketa pertsonal bat egiteko gai izan beharko du. Moztu eta itsatsiz, aurreiritzirik gabeko era aske eta azkar baten bidez dokumentu hauek eraldatu eta hasiera batean bateragarri ez ziren informazioak dokumentu bakar batean bilduko ditu.

Talde bakoitzak oinplano eta ebaketa sorta bat jasoko du, AI formatuan. Irudi matritzial hori eraldatuz bitmapadun irudi bat sortuko dute. Paper zuriari aurre egin beharrean jatorrizko dokumentu batzuk maneiatzeko prozesua azkartzen du, eta berriro ere aurreiritziak saihesteko lagungarri izango da.

### Programa:

Kurtso bakoitzak programa orokor bat izango du, gertakari denak lotuko dituen diskurtso moduko bat. Nahiko irekia izan behar du ikasle bakoitzak garatuko duen programa espezifikoko guztiak bere barnean hartzeko. Kurtso hauetan landutako programa orokorrak salbuespen-areak, irlak, programa dentsuak, atmosferak eta abar izan dira. Bestalde ikasleei izen konkretuagoko programa zerrenda bat eman eta bertatik gustukoena aukeratu dute (programa erakargarria, mito-programa, programa artifiziala...); izen horiek beti datu zehatz batzuekin elkarri loturik doaz, hala nola erabiltzaile kopurua, hezetasuna, gardentasuna eta abar; izen eta datuez gain irudi edo argazki batzuk ere ematen zaizkio ikasleari, eta horrekin guztiarekin bakoitzak zer programa landu nahi duen erabaki beharko du (6. irudia).

Kurtso hauek oinarritzat hartzen dute arkitekturak ez dela existitzeko euskarri egonkorren beharrik. Erabiltzaileek, espazioan sartu eta elkarrekin kontaktuan jartzean, arkitektura aktibatzen dute, horregatik programa erabakigarria


da, baina aldi berean ezin daiteke finkoa izan. «Ezezagunekin lanean» kurtsoek programa konplexu eta intermitente bat duen proiektu bat garatzea proposatzen dute, momentu jakin baten egoera espazial berri eta ezberdin bat eraikitzen duena, betiere aurrez existitzen den testuinguru arkitektoniko errealean gauzatzen delarik.

### Kapak eta azken bermarraztea

Protodokumentua produzitu eta gero, ikasleak marrazkian bertan maila grafiko ezberdinak interpretatuko ditu, eta maila horiek proiektu arkitektonikoaren kapa kontzeptual ezberdinei dagozkie. Egitura, altzariak, argiztapena, energia eta abar informazio grafiko gisa azaleratuko dira. Aldi bakoitzean kide internazional ezberdin bati egokituko zaio kapa kontzeptual bakoitza lantzea, ondoren dokumentuak trukatu egingo dira eta batzuetan kide batek beste batek eginiko lana defendatu beharko du klasean. Egoera horrek ikaslea behin eta berriro jarriko du egoera berri bati aurre egiten, mundu profesionalean gertatu ohi den moduan.

Proiektuaren azken etapa grafikoan protodokumentuetan egindako aurkikuntzei eta prozesu osoan zehar lorturiko informazio eta datuei forma eman beharko zaie. Ikasleek euren proiektu-intentzioak igorri egin beharko dituzte dimentsio handiko formatu arkitektoniko batzuen bitartez: A0 bikoitza tamainako oinplano eta ebaketa gehi A1 tamainako maketa (7. irudia).

Dokumentu handi bakar batean lan egitearen baldintzak, murriztailea izan beharrean, ikaslearen lana ez sakabanatzeko bultzada erabakigarria aportatzen du. Aurrez ezarritako konbentzio eta sistema grafikoak erabiltzeak ideiak igorriago bilakatzen ditu, eta gainera ikasleak etorkizunean bizitza profesionalean biziko duen eguneroko egoera bat erreproduzitzen du, esku askotatik pasako den dokumentu batean lan egitea, alegia.



6. irudia ~ Hasierako liburuan proposatzen diren programatariko bat.  
Iturria ~ Egilea.

7.irudia ~ Oinplano eta maketaren azken entregak.  
Iturria ~ Egilea.

## Ondorioak

Kurtso mota hauek eginez ikasteen oinarritutako prozedurak dira, konponbiderik eta errezetarik gabeko gidaliburuak. Esperientzia bat dira, enuntziatu bat baino gehiago. Lan egiteko era bat, egoera deduktibotik induktibora pasatzen dena, eta informazioa partekatzean nahiz komunikazio propioan sorturiko akatsak egokitzapentzat hartzen dituen, eta ez aurrerapena eragozten duten egoeratzat.

Kurtso hauetan elkar ezagutzen ez duten ikasleen arteko talde-lanak bakoitzak bere unibertsitateko komunitate arkitektonikoan harturiko ezaguerak zalantzan jartzen ditu. Ezezagunekin eta beste hizkuntza batean lan egitean, ikasleek eman beharreko azalpenek ohi baino haratago joan behar dute. Alde batetik, euren inguruan ezagunak diren kontzeptu itxiak azaltzearen zailtasunari aurre egiten diote. Bestalde, ohikoa ez den hizkuntza bat erabiltzean euren hitzen esanahiari buruz hausnartzen dute. Ikasleak bizi duen esperientzia honek errazago azalartzen ditu arkitekturaren berezkoak ditugun aurreiritzi eta beldurrak.

Azkenik, aipatzekoa da kurtso mota honetan irakasleak duen zeregina. Epaila moduan aritu beharrean koordinatzaile gisa arituko da, taldekideen eta horiek lan egiten duten informazioaren arteko bitartekari-lanetan arituz. Ikaslearen lana unibertsitate ezberdinetako hainbat irakasle ikuskatzen dutenez, ezinezkoa bilakatuko da irakasle bakar baten gustua islatzea. «Maisu-maistra ezjakin» honek inongo ezaguerarik transmititu gabe irakasten du (Rancièrre, 2010: 26). Bere ezagueraren eta irakaskuntzaren jardueraren artean bereizteko gai den irakasle bilakatuko da, irakasleek ere mundu profesionalaren eta unibertsitatekoaren arteko tartea betetzeko jarrera irekiago bat hartu behar baitute.

///

## Bibliografia

- Bourriaud, N. (2009): *Postproducción*, Adriana Hidalgo, Buenos Aires.
- Hainbat egile (2012, 2013, 2014, 2015): *OpenCourseWare UD Soriano*, <<http://ocw.upm.es/proyectos-arquitectonicos>>.
- Hainbat egile (2012): *Words. Manual de Proyectos UD 26. Colección Textos Académicos ETSAM-UPM*, Mairca, Madril.
- Hainbat egile (2013): *Atlas of emulations of the Informal I: Favelas. Ud 19 Assignment 2013-2014*, Fisuras, Madril.
- Hainbat egile (2014): *Atlas of emulations of the Informal II: From Planimetric to Holographic. Ud 19 Assignment 2013-2014*, Fisuras, Madril.
- Hainbat egile (2014): *Atlas of emulations of the Informal III: Exceptional Areas. Ud 19 Assignment 2014-2015*, Fisuras, Madril.
- Hainbat egile (2015): *Atlas of emulations of the Informal IV: Flux and Traces. Ud 19 Assignment 2014-2015*, Fisuras, Madril.
- Hainbat egile (2015): *Atlas of emulations of the Informal V: Residue Islands. Ud 23 Assignment 2015-2016*, Fisuras, Madril.
- Hainbat egile (2016): *Atlas of emulations of the Informal VI: Reveries Affairs. Ud 23 Assignment 2015-2016*, Fisuras, Madril.
- Rancièrre, J. (2010): *El maestro ignorante*. Laertes, Bartzelona.